BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5245

EBAZPENA, 2014ko azaroaren 13koa, Hezkuntzako sailburuordearena, unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko laguntzak ebazten dituena (EIMA 2.0).

Euskarazko ikasmaterial digitaletarako laguntza-bideetara dei egin zuen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak 2014ko uztailaren 30eko Aginduaz (2014ko irailaren 1eko EHAA). Hori dela eta, Ebazpen-batzordearen proposamenez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2014ko uztailaren 30eko Aginduan adierazitako prozedurari jarraituz, guztira banatzeko dauden 200.000 euroko diru-partidatik, ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren diru-laguntzak esleitzea.

Bigarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean aipatzen diren ikasmaterialei diru-laguntzarik ez ematea. Diru-laguntzarik ez ematearen arrazoia honako hau da: Proiektuaren Egitura, Edukiaren Egokitasuna, Demoa eta/edo Aurrekontua ataletan gutxieneko maila lortu ez izana, laguntza-deialdiaren 17.2 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.– Ebazpen honen III. eranskinean aipatzen diren ikasmaterialei diru-laguntzarik ez ematea. Diru-laguntzarik ez ematearen arrazoia, kasu honetan, hau da: diru-partida agortu duten proiektuek baino puntuazio txikiagoa dute proiektu horiek eta, beraz, laguntzarik gabe geratu dira, laguntza-deialdiaren 17.1 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Laugarrena.– Ebazpen honen IV. eranskinean aipatzen diren ikasmaterialei diru-laguntzarik ez ematea. Diru-laguntzarik ez ematearen arrazoia honako hau da: entitateko gehienez 2 proiektu lagunduko dira diruz, laguntza-deialdiaren 16. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Bosgarrena.– Ebazpen honen V. eranskinean aipatzen diren ikasmaterialei diru-laguntzarik ez ematea. Diru-laguntzarik ematearen arrazoia honako hau da: ez dute proiektuari dagokion dokumentazioa bidali, 25.1 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Seigarrena.– Ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, hamabost egun naturaleko epea izango du diru-laguntza esleitu zaion produktore bakoitzak bere produkzioa egingo duen ala ez idatziz ziurtatzeko eta lan-egutegia aurkezteko. Ziurtapen hori egiten ez badu, diru-laguntzari uko egiten diola ulertuko da.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen hau banan-banan jakinaraziko zaio laguntza-eskatzaile bakoitzari eta ondoren EHAAn argitaratuko da.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa egin dezakete interesdunek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Ebazpen honetako euskal eta erdal idazkien artean interpretazio-auzirik sortuko balitz, jatorrizkoa euskaraz idatzitakoa dela kontuan izanik hura hartuko da korapiloa askatzeko gidari.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 13a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.

I. ERANSKINA

LAGUNTZA JASOKO DUTEN PROIEKTUAK

Creative Commons			
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren Izenburua	Diru-Laguntza
2014/013 CC	Fundación Deusto	Etxebizitzetako instalazioak	13.950
2014/014 CC	Fundación Deusto	Robotika	15.350
2014/003 CC	Euskomedia Fundazioa	Mapak irakurtzen ikasi	9.230
2014/009 CC	Ikasplay, S.L.	Historiaren makina	17.974
2014/011 CC	Gestionet Multimedia, S.L.	Tribiabentura	29.940
2014/012 CC	Ikerpartners, S.L.	Lan-bideak	13.556
		Orotara	100.000

Jabetza Pribatua			
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren Izenburua	Diru-Laguntza
2014/008 JP	Ehi Koop. E.	EKI DBH 2 Gizarte Zientziak. E-liburua	30.000
2014/009 JP	Elkar-Ikastolak, S.L.	EKI DBH 2 Natur Zientziak. E-liburua	30.000
2014/004 JP	Elkarlanean, S.L.	Txanela LMH 3. Musika	11.080
2014/005 JP	Elkarlanean, S.L.	Txanela LMH 4. Musika	11.080
2014/002 JP	Gaiak Argitaldaria	Mutilak eta neskak berdintasunaren bidean	17.840
		Orotara	100.000

II. ERANSKINA

LAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN PROIEKTUAK

Proiektuaren Egitura, Edukiaren Egokitasuna, Demoa edota Aurrekontua ataletan gutxieneko maila lortu ez dutelako, deialdiaren 17. 2 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Creative Commons						
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren Izenburua	Proiektuaren Egitura	Edukiaren Egokitasuna	Demoa	Aurrekontua
2014/001 CC	Bilbao Digital	Giza baliabideak eta erantzukizun sozial korporatiboa	x	x	x	
2014/002 CC	Badihardugu	Transmisioa ikasgelan	x			x
2014/004 CC	Naturgaia, S.L.	Harremana eta ugalketa. Izaki bizidunen funtzioak				x
2014/005 CC	Naturgaia, S.L.	Solidoak, likidoak eta gasak. Hori da dena				x
2014/006 CC	Lea Artibai Ikastetxea	Irati eta Aitzol Ondarroako portuan		x		
2014/007 CC	Virtualware, S.A.	Hitz bilduma				x
2014/008 CC	Lea Artibai Ikastetxea	Arrisku egoerak eskola orduetan		x		
2014/010 CC	Virtualware, S.A.	Lagunak 1		x		

Jabetza Pribatua						
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren Izenburua	Proiektuaren Egitura	Edukiaren Egokitasuna	Demoa	Aurrekontua
2014/001 JP	La Pecera, S. Coop.	Natura 2		x		
2014/003 JP	Gaiak Argitaldaria	Txinera ikas daiteke	x	x		x
2014/010 JP	Elkar-Ikastolak, S.L.	EKI DBH 2 Matematika. E-liburua				x
2014/011 JP	Euskal Herriko Ikastolak Koop. E.	EKI DBH 2 Euskara. E-liburua				x
2014/013 JP	Gestionet Multimedia	Gorputzean zehar bidaiatzen		x		
2014/014 JP	Ikasplay, S.L.	Dragoi ibiltaria			x	

III. ERANSKINA

LAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN PROIEKTUAK

Diru-partida agortu duen proiektuak baino puntuazio txikiagoa dutelako, 17.1 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Creative Commons		
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren Izenburua
2014/017 CC	Gestionet Multimedia, S.L.	1,2,3… Quiz!

Jabetza Pribatua		
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren Izenburua
2014/015 JP	Ikerpartners, S.L.	Gorputzaldiak 2.0
2014/012 JP	La Pecera, S. Coop	Zenbakien zirkua

IV. ERANSKINA

LAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN PROIEKTUAK

Entitateko gehienez 2 proiektu lagunduko direlako diruz, deialdiaren 16. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Creative Commons		
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren Izenburua
2014/015 CC	Fundación Deusto, S.L.	ZientziaKode
2014/016 CC	Fundación Deusto, S.L.	Newton-ikasgai

Jabetza Pribatua		
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren Izenburua
2014/006 JP	Elkarlanean, S.L.	Txanela LMH 5. Musika
2014/007 JP	Elkarlanean, S.L:	Txanela LMH 6. Musika

V. ERANSKINA

LAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN PROIEKTUAK

25.1 artikuluak dioena betetzen ez dutelako.

Jabetza Pribatua		
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren Izenburua
2014/016 JP	Editorial Hariadna, S.L.	Programatzen ikasi. Ikaslearentzako koaderno digitala
2014/017 JP	Editorial Hariadna, S.L.	Programatzen ikasi. Irakaslearentzako gidaliburu digitala